

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUMENAREN SAILA

**218/2024 Foru Agindua, apirilaren 24koa. Onestea Santiago eguneko azokan beren ekoizpena merkaturatu nahi duten pertsonak, enpresek edo erakunde ekoizleek parte hartzeko deialdia 2024rako**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 14ko 25/2022 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaizen Santiago eguneko azokan beren ekoizpena merkaturatu nahi duten pertsona, enpresa edo erakunde ekoizleen partaidetza arautzen duten oinarriari eta 2022rako deialdiari.

Nekazaritza Sailak asmoa dauka 2023ko uztailaren 25ean Santiago eguneko nekazaritza azoka tradizionala egiteko. Azoka egitearen helburu nagusiak hauek dira: hiriko biztanleei Araban lantzen, hazten, egiten eta eraldatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuen aberastasuna eta ugaritasuna erakustea; landa eremuak garatzeko orduan nekazaritzak eta abeltzaintzak duten garrantzi soziala nabarmentzea, eta Arabako ingurune naturala babestea eta kontserbatzea.

Vitoria-Gasteizko Unibertsitate Campusean egingo da azoka.

Honen bidez, beren ekoizpena merkaturatzeko azokan parte hartu nahi duten ekoizleentzako deialdi publikoa egiten da.

Administrazio publikoen laguntzak edo prestazioak ematerakoan, publikotasun, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioak beteko direla bermatu behar da.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Santiago eguneko azokan parte hartzeko 2024rako deialdia onestea, honako xehetasun hauekin:

a) Eskerak aurkezteko lekua eta epea.

Eskaera inprimaki normalizatuan egin beharko da, eta Nekazaritza Sailaren webgunean eskuratu ahal izango da. Leku hauetan aurkeztuko da:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko ogasun bulegoetako erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/participacion-feria-agricola-santiago>) telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoen; nortasun juridikorik gabeko erakundeek; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenek, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen intresdun bat ordezkatzeko dutenek.

Eskerak aurkezteko epea deialdi honen iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 16an amaituko.

b) Eskaerekin batera, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak eta konpromisoak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da.

c) Nolanahi ere, foru aldundiak eskubidea izango du eskaera behar bezala baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri oro eskatzeko pertsona fisiko eta juridiko eska-tzaileei.

d) Eskaeretan akatsen bat dagoela edo daturen bat falta dela ikusten bada, organo izapide-tzaileak, hala dagokionean, pertsona edo erakunde interesdunei eskatuko die eskaeran eskatu-tako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako agiriak aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendu jakinarazpena jaso ondorengo egunetik zenbatuta, larunba-tak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan adieraziko da eskatutakoa bete ezean eskaeran atzera egin dela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

e) Organo izapidetzaileak modu elkarreragilean egingo ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagirietan egin beharreko kontsultak eta egiaztapenak, bai eta zerga egoitza Araban izatearenak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zer-garen epigrafeen kontsulta ere, salbu eta eskatzaileak edo onuradunak horren aurka badaude. Aurka egonez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

f) 66 erakusmahai jarriko dira, gehienez ere. Ez da produktu motaren araberako partaidetza mugarik ezarriko.

Bigarrena. Foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioko Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Nekazaritzako foru diputatuari, hilabeteko epean, foru agindu honen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Le-gearen 46.1 artikulua. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Pro-zedura Erkidearena.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 24a

*Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurumen Saileko foru diputatua*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**DAVID FERNÁNDEZ SARABIA**